

**2005EKO EKAINAREN 23AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hirua.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta bosta.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Jon Olano Arrese
Malu Valles Fernandez
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jose Antonio Ibaibariaga Usabiaga
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Alfonso Segade Gonzalez
Maria Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Gonzalo Zaldo eta Arana
Iñaki Saldaña Herrero

ETORRI GABEA: Aitor Aldasoro Iturbe

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bilkuran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2005eko apirilaren 28ko aktaren onespena.

2005eko apirilaren 28ko aktaren berri eman ondoren, PPko ordezkariak esan du, ez daudela aktarekin ados Igartzatik plataformakoek esan zutena ez dela azaltzen eta.

Beste guztiak aktarekin ados azaldu dira.

Horren ondorioz, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, EB)

Aurkako botoak: 2 (PP)

Abstentzioak: 0

Beraz, akta gehiengo absolutuarekin onartu da.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 1. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketa.

Gai honi buruz hirigintza-batzordeak egindako bi proposamenak eman dira ezagutzera, hain zuzen ere, hauek:

a- Irizpideak eta helburuak onartzea.

“Gaia: 1 Hirigintza Arearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari buruzko irizpideak eta irtenbideak onartzea.

AURREKARIAK

Aurrekarien dokumentua jendaurrean jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2005eko apirilaren 27an, 2005eko apirilaren 18an Berrian eta 2005eko apirilaren 21ean Diario Vascon iragarkiak argitaratuta. Akatsa zegoela eta, akats-zuzenketak, Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2005eko apirilaren 28an eta maiatzaren 6an argitaratu ziren.

Legez ezarritako epean, ez da alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamenduko Erregelamenduaren 125.3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzari gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEaren 47.3i artikulua), ondorengo proposamena egin zaio:

Lehenik. 1. Hirigintza Arearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketa lantzeko behar diren ondorengo irizpideak eta irtenbideak onartzea:

- Egun Martina Maiz kalean, 5. zk.an dagoena ordenazioz kanpo utziz eta bere lekuan eta bere jabetzakoak diren lursailetan, 1. HAn egikaritze-unitate berri bat mugatzea (1.2 EU), eraikin berri bat egiteko.
- Eraikin berri horretan, eraikitako 14 m-ko gehienezko fondoan, hiru soto, etxebizitzak eta garajeak beheko oinean eta etxebizitzadun lau oin eta teilatupea dituen C-C sekzioa finkatzen da.
- Garaje-soto oinean, okupazio gehiago baimentzen dira eta Martina Maiz kalearen ertzean dagoen finkaren hirigintza eta lagapena eskatzen da, espaloia handitzeko eta Esteban Lasa eta Martina Maiz kaleak gurutzatzen diren tokian dagoen gunere librearen hirigintza ere handitzeko.
- Etxebizitza-kopurua handitzeak (27-16=11), gunere libre gehiago eskatzen du eta horiek Sagastigutia parkea, 500 m² handituz kokatu dira.

Bigarren. Erabaki honen berri idazlan-ekipoari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

b- Hasierako onespena

“Gaia: 1. Hako Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari buruzko hasierako onespena.

AURREKARIAK

Udalbatzari 1. HA Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketa lantzeko irizpideak eta irtenbideak onartzeko proposamena egin zaio etaegindako bileran onartu dira.

Horren ondorioz eta Planeamenduko Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egin zaio:

Lehenik. 1. HA Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia GAO-n eta Berria eta Diario Vasco egunkarietan argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta aldi berean legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

3.- KONTU OROKORRAK. 2004. urteko Kontu Orokorrak onartzea.

Alkate jaunak Kontu Orokorreko laburpen honen berri eman du:

“1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2004-12-31n / Fondos líquidos de Tesorería a 31-12-2004		4.176.820,47
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2004-12-31n / Saldos pendientes de cobro a 31-12-2004:		
1.742.367,65		
Aurrekontuko zordunak / Deudores presupuestarios:	1.675.748,04	
Aurrekontuz kanpoko zordunak / Deudores extrapresupuestarios:	66.619,63	
- Aplikatu gabeko kobrantzak / - Cobros pendientes aplicación:	-0,02	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2004-12-31n / Saldos pendientes de pago a 31-12-2004:		
1.496.753,63		
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak / Acreedores presupuesto gastos:	1.274.525,10	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak / Acreedores presup.ingresos:	1.172,29	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak / Acreedores extrapresupuestarios:	221.056,21	
- Aplikatu gabeko ordainketak / - Pagos pendientes de aplicación:	0,03	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3) / Remanente de Tesorería bruto (1+2-3):		4.422.434,49
5.- Saldo kobragaitzak / Saldos de dudoso cobro:		695.267,96
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5) / Remanente de Tesorería líquido (4-5)		3.727.166,53
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina / Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada:		6.607,10
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7) / Remanente de Tesorería para gastos generales (6-7):		3.720.559,43

9- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza	
/ Resultado operaciones presupuestarias del Presupuesto vigente:	1.272.015,06
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza	
/ Resultado operaciones de presupuestos liquidados en ejerc. anter.:	17.443,01
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	
/ Ajuste obligaciones financiadas con Remanente.de Tesorería:	713.266,57
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik	
/ Ajuste desviaciones en gastos con financiación afectada:	28.495,54
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12)	
/ Resultado presupuestario (9+10+11+12):	1.996.334,16
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak	
/ Remanentes de créditos susceptibles de incorporación:	10.373.124,20"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo jarrera azaldu dute:

Ezker Batuko ordezkariak esan du abstenitu egingo dela.

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

PSOeko ordezkariak ere abstenitu egingo direla diote.

Puntu honetara iritsi eta, PPko bozeramaileak testu hau irakurri du:

“Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Reitero lo que dije en el Pleno anterior. Me hago responsable.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE; EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin behin betiko onartu da 2004ko. ekitaldiari dagozkion Kontu Orokorrak.

4.- TASAK. Euskaltegiko eta Musika Eskolako tasei hasierako onespena ematea.

Hazienda-batzordearen proposamena eman da ezagutzera, hau da:

“Hazienda-batzordeak 2.005eko ekainaren 17an egindako bileran, honekin batera doazen, Organismo autonomo bakoitzeko Batzordeek proposatutako, tarifak onartzea proposatzen dio Udalbatzari:

<u>BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA</u>					
<u>PUBLIKOA</u>					
2005-2006 IKASTURTEA					
					<u>Euroak</u>
MUSIKA-TAILERRA					14,96
HASTAPENA					19,00
MUSIKA LENGOAIA. INSTRUM.					
2. Maila					51,67
3. Maila					54,77
INSTRUMENTUA					
2. Maila					38,22
3. Maila					40,29

TRIKITIXA					33,05
PANDEROA					23,33
IZENEMATEA					27,00
M.L. INSTRUMENTURIK GABE					17,03
M.L. PANDEROAREKIN					38,22
GAI TEORIKOAK					17,03
INFORMATIKA					17,03
KANTUA BAKARKA					39,78
KANTUA BIKOTEKA					23,33
KANTUA TALDEAN					17,03
MATERIALA					6,00
Familiako partaide-kopuruarengatiko dirulaguntza:					
	1. partaideak: kuota osoak				
	2. partaideak: kuota osoak				
	Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.				

UDAL EUSKALTEGIKO IRAKASKUNTZA ZERBITZUA

2005-2006ko ikasturtea

Ikastaroak	Ordu kopurua	prezioa
Astean 10 orduko ikastaroa	346 ordu	395 €materiala barne
Astean 8 orduko ikastaroa	274 ordu	317 €materiala barne
Astean 4 orduko ikastaroa	130 ordu	203 €materiala barne
Etorkinentzako ikastaroa	60 ordu.	10 €
Ostalarientzako ikastaroa	60 ordu.	65 €
Autoikaskuntza tutorearekin	234 ordu.	460 €materiala barne
Udako ikastaroa	100 ordu	116 €materiala barne

- 2005-2006 ikasturtean orduko 1,09 €kobratuko da.
- Ikasleek matrikularen kopuruaren erdia ikastaroa hasi baino lehen edo hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu beharko dute. Gainerakoa, hurrengo bi hilabeteetako lehenengo astean ordaindu beharko dute.
- Langabetuek %35eko beherapena/hobaria izango dute matrikulatzerakoan.
- Ikasturte-amaieran %60ko hobaria izango dute ondorengo baldintzak betez gero:
 - Beasainen erroldatuta egotea
 - Klase orduen %85eko asistentzia betetzea
 - Gutxienez urrats bat gainditzea

Honetatik kanpo geratuko dira matrikula erakunde edota enpresaren batek ordaintzen dieten ikasleak
- Ikasleak HABEtik ere, jaso dezake dirulaguntzarik Horretarako, euskara-mailak egiaztatzeko HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

- Espainian bizitzeko baimen iraunkorra ez daukatenek baina herrian erroldatuta daudenek, %50eko hobaria izango dute matrikulatzerakoan. Ikastaroa amaitzerakoan ere, beka jasotzeko eskubidea izango dute, horretarako onartutako baldintzak betez gero.”

Alkateak esan du, igoera %3,4koa dela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ez dute ezer adierazi.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PP, EB).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabaki hau hartu da:

Lehenik. 2005-2006 ikasturterako Euskaltegiko eta Musika Eskolako tasei hasierako onespina ematea.

Bigarren. 30 eguneko epean aipatutako tarifak jendaurrean jartzea, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta epe horretan inolako alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko dira.

5.- HITZARMENA. Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofizialarekin hitzarmena sinatzea.

2005eko ekainaren 17ko Hazienda-batzordearen proposamena eman da ezagutzera, hau da:

“**Lehenik.** Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofizialarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia onartzea.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EBko ordezkariak esan du abstenitu egingo dela. Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo hitzarmena sinatzea onartu da:

“EKONOMIA-JARDUEREN ZERGAREN GAINEKO
GANBERA-BALIABIDE IRAUNKORRAREN BILKETARAKO
ZERBITZU-EMATE LANKIDETZA-HITZARMEN EREDUA GIPUZKOAKO
MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA NABIGAZIOKO BAZKUN OFIZIALAREN
ETA, UZTAILAREN 5EKO 11/1989 FORU ARAUAREN INDARREZ,
ZERGAREN KUDEAKETA BERE GAIN HARTUA DUEN GIPUZKOAKO
LURRALDE HISTORIKOKO ZEINAHÍ UDALÉN ARTEAN.

Zerbitzu Emate Hitzarmena Beasaingo Udal Txit Gorenaren eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofizialaren artean, Ekonomia Jardueren Zergaren gaineko ganbera-baliabide iraunkorraren bilketarako.

BILDURIK:

Alde batetik, Patxi Plazaola Muguruza jn., Beasaingo Udal Txit Gorenaren ordezkartzan, eta, bestetik, Felix Iraola Escrihuahela jn., Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofizialeko Zuzendari Nagusia, beronen ordezkartzan.

ADIERAZTEN DUTE:

Beasaingo Udal Txit Gorenak bere gain hartu duela, hala borondatezko aldian, nola hertsamen bidez, (urtea)ko (hila)ren (eguna)tik hasita kitatzeko dagoen Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bilketa.

Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofiziala interesaturik dagoelako Udal Txit Gorenak egin dezan, Bazkunaren alde, 1992ko urtarrilaren 1etik hasita kitatu beharreko Ekonomia Jardueren Zerga kuoten gaineko ganbera-baliabide iraunkorraren bilketa zerbitzua.

ERABAKITZEN DUTE:

XEDEA

1. Artikulua.- ko Udal Txit Gorenak hartzen du bere gain, hala borondatezko aldian, nola hertsamen bidez, (urtea)ko (hila)ren (eguna)tik hasita kitatuko diren udal barruti honetako Ekonomia Jardueren Zergaren gaineko baliabide iraunkorraren bilketa kudeaketa Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofizialaren alde.

ARAU ERREGULATZAILEAK

2, Artikulua.- Ondorengo lege edo arauen arabera kudeatuko da zerga-bilketa zerbitzua:

1. Hitzarmen honetako oinarriak.
2. Urtarrilaren 31ko Zergei buruzko 1/1985 Foru Arau Orokorra.
3. Apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Araudia.
4. Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautzen duten arauak (apirilaren 20ko 1/1993 Foru Arau Dekretua; azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua; etab.) eta Ganbera-Baliabide Iraunkorrarena (abenduarien 28ko 22/1993 Foru Araua)
5. Berorien garapen edo aldaketarako gainerako kideko arauak.

BILKETAREN KUDEAKETA

Artikulua, -

- 1) Ganbera baliabide iraunkorraren kuoten kitapena Ekonomia Jardueren gaineko Zergatik bereizita egingo da, kitapen-agiri bereborean.
- 2) Ganbera baliabide iraunkorraren kuoten bilketa kitaturiko agiri bakoitzeko zor osoarekin batera egingo da.
- 3) Ganbera baliabide iraunkorraren kuoten bilketan eragina izango dute Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ordainketa atzeratze eta zatikatze eskaeren ebazpenak, irabazkin, kuota eta gainerako zerga elementuei buruzko errekursoenak, eta kobratze prozedura eteteko eskabideei buruzkoak.
- 4) Ingresatutako kopuruen transferentzia Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Errolda ordaintzeko borondatezko aldia amaitzen denetik hiru hilabeteko epea igaro eta gero sartuko dirá indarrean, behin-behineko izaeraz.
- 5) Egindako transferentziek behin-behineko izaera dute, administrazio edo jurisdikzio bideetan dauden errekursoen ebazpenaren eraginez aldaketak izateko aukera baitago.

- 6) Udalak edo jurisdikzio bidean onartutako sarreren itzulketak esandako itzulketak gauzatzen den urtean egin beharreko transferentziatik deskontatuko dirá.
- 7) Egiteko dagoen kobrantzaren kudeaketari buruzko informazio igorpena Udaleko Zerga-bilketa Eragileak egingo du bitarteko informatikoen bidez, Ganberak horretarako eskaria egiten duenetik hamabost eguneko epearen barman.

ZERBITZUAREN KOSTUA

4. Artikulua.- Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Bazkun Ofizialak bere gain hartzen du

ko Udal Txit Gorenari ordaintzea, zerbitzuaren kontraprestazio gisa, transferentzia bakoitzetik deskontatuko diren ondorengo kopuru hauek:

- 1) Borondatezko aldian ganbera-baliabide iraunkorraren kontzeptuan bildutako kopuruen 100eko 10.
- 2) Hertsamen aldian ganbera-baliabide iraunkorraren kontzeptuan bildutako kopuruen 100eko 20.

HITZARMENAREN IRAUNALDIA

5. Artikulua.- Hitzarmen honek (urtea)ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte izango du eragina.

Esandako epearen amaieran, Hitzarmena aipatu beharrik gabe luzatuko da urtebeteko hurrenez hurrengo epeetan, Udalbatza Txit Gorenak Osoko Bilkuran edo Gipuzkoako Bazkunak berariaz salatzen dutenean izan ezik, salaketa indarraldia amaitu aurreko azarearen la baino lehen egin beharko delarik. Esandako salaketak jakinarazten den dataren hurrengo urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Eta bat datozela berresteko, bi parteek izenpetzen dute agiri hau idazpuruan aipatutako datan eta lekuan.

GIPUZKOAKO BAZKUNAREN IZENEAN

UDALAREN IZENEAN

ZUZENDARI NAGUSIA

Felix Iraola Escrihuela jn.

6.- HITZARMENARI ATXIKITZEA. EUDEL eta IBERDROLA, S.A.ren artean sinatutako hitzarmenari atxikitzea.

2005eko ekainaren 17ko hazienda-batzordearen proposamena eman da ezagutzera:

“GAIA.- EUDEL eta Iberdrola Distribución Eléctrica erakundeek sinatutako hitzarmenera atxikitzea.

2005eko martxoaren 23an aipatutako erakundeek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, ondorengo helburuarekin: IBERDROLA, S.A. eta EUDELeko kide diren udalerrien artean gasa eta elektrizitatea hornitzeko sinatutako kontratuen eraginkortasuna optimizatzeko, bai eta udal-jabetza publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasaren kudeaketa errazteko ere.

Hitzarmenaren edukia aztertu ondoren, Hazienda Batzordeak Udaltzaria Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik.- Beasaingo Udalaren atxikipena EUDEL eta IBERDROLA, S.A. erakundeek sinatutako hitzarmenarekiko.

Bigarren.- Atxikipen-akordioa EUDELera bidaltzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EBko ordezkaria ezik, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 1 (EB)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da, ondorengo hitzarmenari atxikitzea:

**CONVENIO DE COLABORACIÓN EUDEL -
IBERDROLA, S.A.**

En Bilbao a 23 de marzo de 2005, en la sede de EUDEL, Plaza del Ensanche núm 5, Bilbao.

De una parte, D. Karmelo Sainz de la Maza, Presidente de EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS, (EUDEL), compareciendo en cumplimiento del acuerdo adoptado por la Comisión

**EUDEL - IBERDROLA, S.A. REN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA**

Bilbon, 2005eko martxoaren 23an, EUDEL en egoitzan (Zabalgune plaza, 5. zk., Bilbao).

Batetik, Karmelo Sainz de la Maza jauna, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA - ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS - EUDEL en elkarte burua, izan ere, Batzorde Agintariak 2003ko urriaren 21ean hartutako erabakia betez azaltzen da.

Ejecutiva de la Asociación, de fecha 21 de Octubre de 2.003.

De la otra, D. Ángel Gómez Herrero, en representación de IBERDROLA, S.A.

Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para suscribir el presente acuerdo

MANIFIESTAN

Primero.- Que IBERDROLA, S.A., es una empresa comercializadora de Electricidad y Gas que desarrolla su actividad comercial en el ámbito territorial de los municipios asociados a EUDEL.

Segundo.- Que es interés de ambas partes establecer un Convenio de colaboración para optimizar la eficiencia de los contratos de suministro de gas y electricidad suscritos entre IBERDROLA, S.A., y los asociados de EUDEL, así como facilitar la gestión de la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público municipal.

Por ello, ambas partes suscriben el presente Convenio y en consecuencia,

ACUERDAN

I.- Establecer un órgano permanente de relación entre IBERDROLA, S.A. y la dirección de EUDEL, cuyas funciones serán:

- a) Garantizar el cumplimiento del presente Convenio y dinamizar los Programas que contiene.
- b) Realizar el seguimiento del Convenio para la gestión de la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público local.

II.- Adoptar un Programa de Ahorro Energético para los suministros Municipales, que incluya tanto la racionalización de instalaciones como la optimización de la contratación y el oportuno seguimiento de los mismos.

III.- Adoptar igualmente un Programa de Formación sobre Consumo Eléctrico para los empleados municipales y, en concreto, para los de las Oficinas Municipales de Información al Consumidor.

IV.- Estudiar cualquier otro Programa de Actuación de interés común.

V.- La recientes modificaciones de la Norma Foral 5/1989, de 30 de junio, de Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia (Norma Foral 7/2003, de 26 de marzo, de Reforma del Régimen de Tributación Local), de la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa (Norma Foral 4/2003, de 19 de Marzo, de reforma del sistema de Tributación Local) y la Norma Foral 41/1989, de julio, de Haciendas Locales

Bestetik, Ángel Gómez Herrero jauna, IBERDROLA, S.A.ren ordezkari gisa.

Alde biek onartu egiten diote elkarri badutela nahikoa lege-gaitasunik agiri hau sinatzeko eta honako hau

AZALDU DUTE

Lehenengoa.- IBERDROLA, S.A. Elektrizitatea eta Gas merkaturatzen duen enpresa da eta bere merkataritza jarduera EUDELeko kide diren udalerrien lurralde eremuan garatzen du.

Bigarrena.- Alde bientzat interesgarria da lankidetz hitzarmena sinatzea, IBERDROLA, S.A.ren eta EUDELeko kide diren udalerrien artean gasa eta Elektrizitatea hornitzeko sinatutako kontratuen eraginkortasuna optimizatzeke, bai eta udal jabetza publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasaren kudeaketa errazteke ere, eta, ondorioz, honako hau da

AKORDIOA

I.- IBERDROLA, S.A.ren eta EUDELeko zuzendaritzaren artean harremanetarako organo iraunkorra ezartzea. Hona hemen organo horrek izango dituen funtzioak:

- a) Hitzarmen hau betetzen dela bermatzea eta bertan azaltzen diren programak dinamizatzea.
- b) Udal jabetza publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasaren kudeaketarako Hitzarmenaren jarraipena egitea.

II.- Udal hornikuntzetan Energia Aurrezteko Programa bat ezartzea, programa horretan sartuz bai instalazioen arrazionalizazioa, bai kontratazioaren optimizazioa, bai eta horien jarraipen egokia ere.

III.- Era berean, Kontsumo Elektriokoari buruzko Prestakuntza Programa bat ezartzea aurreikusi da udal langileentzat eta, hain zuzen ere, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoetako langileentzat.

IV.- Alde bientzat interesa daukan beste edozein Jarduera Programa aztertzea.

V.- Duela gutxi aldatu egin dira 5/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoa (7/2003 Foru Araua, martxoaren 26koa, Tokiko zerga-ordainketaren araubidea eraldatzeko), 11/1989 Foru Araua, uztailearen 5koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoa (4/2003 Foru Araua, martxoaren 19koa, Tokiko zerga-ordainketaren sistema eraldatzeko) eta 41/1989 Foru Araua, uztailekoa,

en el Territorio Histórico de Alava (Norma Foral 12/2003, de 31 de marzo, de modificación de las Haciendas Locales), hacen necesario establecer un nuevo marco de actuación en la gestión de la tasa por la utilización privativa y aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de las vías públicas municipales.

El fundamento jurídico de esta tasa viene recogido en el artículo 24 del Real decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y en las Normas Forales de los tres Territorios Históricos.

La tasa por la utilización privativa y aprovechamientos especiales de suelo, vuelo y subsuelo de vías públicas municipales se establece en el 1,5% de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en cada término municipal, entendiéndose éstos como los ingresos que hayan sido obtenidos por IBERDROLA, S.A. como contraprestación por los servicios prestados en cada término municipal, entendiéndose por ingreso bruto lo que a tal efecto prevén las Normas Forales reguladoras de la tasa en sus respectivos territorios históricos:

"c) Cuando se trate de tasas por utilización privativa a aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, a favor de empresas explotadoras de servicios de suministros que resulten de interés general o afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario, el importe de aquéllas consistirá, en todo caso y sin excepción alguna, en el 1,5 por 100 de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en cada término municipal las referidas empresas.

A estos efectos, se incluirán entre las empresas explotadoras de dichos servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.

No se incluirán en este régimen especial de cuantificación de la tasa los servicios de telefonía móvil.

Este régimen especial de cuantificación se aplicará a las empresas a que se refiere este párrafo c), tanto si son titulares de las correspondientes redes a través de las cuales se efectúan los suministros como si, no siendo titulares de dichas redes, lo son de derechos de uso, acceso o interconexión a las mismas.

A efectos de lo dispuesto en este párrafo, se entenderá por ingresos brutos procedentes de la facturación aquellos que, siendo imputables a cada entidad, hayan sido obtenidos por la misma como contraprestación por los servicios prestados en cada término municipal.

No se incluirán entre los ingresos brutos, a estos efectos, los impuestos indirectos que graven los servicios prestados ni las partidas o cantidades cobradas por cuenta de terceros que no constituyan un ingreso propio de la entidad a la que se aplique este régimen especial de cuantificación de la tasa. Asimismo, no se incluirán entre los ingresos brutos

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoa (12/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa, Toki Ogasunen aldatetari buruzkoa), eta hori kontuan hartuta, jardunbide marko berria ezarri behar da Udal bide publikoetako zoru, zorupe edo lurgainean eraturako erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziengatik ezarritako tasa kudeatzeko.

Tasa horren oinarri juridikoa Toki Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategina onartu zuen Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 24. artikuluan eta hiru lurralde historikoetako foru arauetan dago jasota.

Bide publikoetako lurzoru, zorupe edo hegalduraren erabilera pribatiboagatik ordaindu beharreko tasa udal mugarte bakoitzean urtero lortutako fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5ean ezarri da, sarrera horiek udalerrri bakoitzean eskainitako zerbitzuen truke IBERDROLAK lortu dituen sarrera gisa ulertuta, eta sarrera gordin gisa tasa hori arautzen duten foru arauak dagokien lurralde historikoetan definitu dutena ulertuta:

"c) Udal bide publikoetako zoru, zorupe edo lurgainean eraturako erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziak biztanle guztiei edo kopuru garrantzitsu bati doazkion hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldekoak direnean, haien ziozko tasen zenbatekoa aipatu enpresek udal mugarte bakoitzean urtean lortzen duten fakturaziotiko diru sarrera gordinen 100eko 1,5ekoa izango da beti eta salbuespenik gabe.

Ondore hauetarako, halako zerbitzuen enpresa ustiatzailetzat hartuko dira banaketako eta merkataritzako enpresak.

Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasa zenbatzeko araubide berezi honetan.

Zenbatzeko araubide berezi hau c) letran aipatutako enpresa guztiei aplikatuko zaie, bai zerbitzuak egiten diren sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren haiek erabiltzeko edo haiekin sartzeko edo konektatzeko eskubideen titular direnei.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, fakturazioaren sarrera gordintzat hartuko dira erakunde batek udalerrri bakoitzean egindako zerbitzuengatik jaso dituen sarreretatik berari egotzi ahal zaizkionak.

Ondore horietarako, ez dira sartuko sarrera gordinetan egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ez gainontzekoen kontura kobratutako partida edo kopuruetatik tasa zenbatzeko araubide berezia aplikatzen zaion erakundearen beraren sarreretatik ezin hartu direnak. Halaber, ez dira sartuko fakturazioko sarrera

procedentes de la facturación las cantidades percibidas por aquellos servicios de suministro que vayan a ser utilizados en aquellas instalaciones que se hallen inscritas en la sección 1ª o 2ª del Registro Administrativo de Instalaciones de Producción de Energía Eléctrica del Ministerio de Economía, como materia prima necesaria para la generación de energía susceptible de tributación por este régimen especial.

Las empresas que empleen redes ajenas para efectuar los suministros deducirán de sus ingresos brutos de facturación las cantidades satisfechas a otras empresas en concepto de acceso o interconexión a las redes de las mismas. Las empresas titulares de tales redes deberán computar las cantidades percibidas por tal concepto entre sus ingresos brutos de facturación.

El importe derivado de la aplicación de este régimen especial no podrá ser repercutido a los usuarios de los servicios de suministro a que se refiere este párrafo c).

Las tasas reguladas en este párrafo c) son compatibles con otras tasas que puedan establecerse por la prestación de servicios o la realización de actividades de competencia local, de las que las empresas a que se refiere esta letra deban ser sujetos pasivos conforme a lo establecido en el artículo 23.1. b) de esta Ley, quedando excluida, por el pago de esta tasa, la exacción de otras tasas derivadas de la utilización privativa o el aprovechamiento especial constituido en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales. "

La liquidación de la Tasa en cada Ayuntamiento se efectuará por Trimestres naturales vencidos y con los valores reales de facturación en el término municipal.

La liquidación se efectuará tras la remisión a los Ayuntamientos, por parte de IBERDROLA, S.A., de un listado de facturación por tarifas del que se acompaña modelo como ANEXO 1, a cuyo total se le aplicará el 1,5%. Para el envío de esta información comenzarán a utilizarse medios telemáticos salvo que algún destinatario no disponga de los medios necesarios para su lectura, en cuyo caso, los ayuntamientos e IBERDROLA, S.A., se comprometen a hacer lo posible para conseguir ese objetivo en el menor plazo.

La presentación del referido listado que contiene los datos necesarios para efectuar la liquidación, se realizará dentro de los 30 días naturales siguientes al vencimiento del trimestre natural y desde tal momento, el pago será exigible.

VI.- En caso de discrepancia respecto de la liquidación, el Ayuntamiento formulará escrito a EUDEL y a IBERDROLA, S.A., comprensivo de sus motivos de desacuerdo, para que en el menor plazo posible, se solvente la incidencia, todo ello, sin renuncia por parte municipal, a su potestad tributaria.

VII.- Cualquier cantidad exigible en concepto de tasa,

gordinetan Ekonomia Ministerioaren Elektraenergia Ekoizteko Instalazioen Administrazio Erregistroko 1. edo 2. atalean inskribatutako instalazioetan araubide berezi honen arabera zerga-ordainketari lotuta dagoen energia sortzeko erabiliko den lehengai hornitzeagatik jasotzen diren kopuruak.

Zerbitzuak hornitzeko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei beraien sareekin konektatzeagatik edo haietan sartzeagatik ordaindutako kopuruak. Halako sareen titular diren enpresek horregatik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin gisa konputatu behar dituzte.

Araubide berezi hau aplikatuz zenbatzen den kopurua ezin zaie jasanarazi c) letran aipatutako hornidura-zerbitzuen erabiltzaileei.

c) letra honetan araupetutako tasak bateragarriak dira udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezartzen diren beste tasa batzuekin, letra honetan aipatutako enpresak haien subjektu pasibo izan behar direnean foru arau honetako 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tasa hau ordaintzen duenak ez du edukiko udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo hegalduraren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik".

Udal bakoitzean, Tasaren likidazioa mugaeguneratutako hiru hileko naturaleko egingo da, udal mugartean fakturatutako benetako kopuruak kontuan hartuta.

Likidazioa IBERDROLA S.A.k udaletara tarifakako fakturazioaren zerrenda bidali ondoren egingo da (honako honi erdua erantsi zaio 1. ERANSKIN gisa), eta kopuru osoari %1,5 aplikatuko zaio. Informazio hori bidaltzeko bitarteko telematikoak erabiltzen hasiko dira, hartzaileetarako batek irakurketarako behar diren baliabideak ez dituen izan ezik, izan ere, kasu horietan, udalek eta IBERDROLA S.A.k hitz ematen dute helburu hori ahal denik eta epe laburrean lortzeko ahal den guztia egingo dutela.

Likidazioa egiteko behar diren datuak dituen zerrenda hori hiru hileko naturala bukatu eta 30 egun naturaleko epean aurkeztuko da, eta ordutik aurrera ordaintzeko eska daiteke.

VI.- Likidazioa dela-eta ezadostasunik balego, Udalak EUDELi eta IBERDROLA S.A. enpresari idazkia bidaliko die, eta, bertan, ezadostasunaren arrazoiak azalduko ditu, horrela, ahal denik eta azkarren, gorabehera konpon dadin; hori guztiori udalak zerga kontuetan duen ahalmenari uko egin gabe egingo du.

VII.- Tasa gisa eska daitekeen edozein kopuru,

podrá ser compensada con deudas exigibles del Ayuntamiento, sin perjuicio de las prelación de crédito que legalmente procedan.

VIII.- El procedimiento pactado de liquidación de la tasa, tendrá efectos desde el 1 de Enero de 2005.

IX.- Si una disposición de carácter general aplicable al ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco modificase la regulación de la tasa establecida en el apartado V del presente Convenio, ésta se ajustará a lo dispuesto en la citada norma.

X.- El presente Convenio se establece por un año, renovable por la tácita por períodos sucesivos de un año si no se denuncia con tres meses de antelación a la expiración de cada uno de ellos.

XI.- Los Ayuntamientos socios de EUDEL que deseen acogerse a este Convenio deberán adherirse al mismo a través de la Asociación. EUDEL se compromete a informar a IBERDROLA, S.A. de los Ayuntamientos adheridos y de las nuevas adhesiones o bajas puedan producirse. Tanto las bajas como las nuevas adhesiones surtirán efectos en el trimestre siguiente a aquél en que se produzcan.

XII.- El presente Convenio es compatible con el derecho de IBERDROLA, S.A. a mantener y promover los recursos administrativos y contencioso-administrativos que correspondan en petición de la modificación de la normativa sobre la Tasa que en este Convenio se acuerda gestionar, de la forma más ágil, automática y transparente, en tanto no cambie su régimen jurídico.

En prueba de conformidad, firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto.

Udaletik eska daitezkeen zorren bidez konpentsatu ahal izango da, legez bidezkoak izan daitezkeen kreditu lehentasunen kalterik gabe.

VIII.- Tasa likidatzeko adostu den prozedura 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera egongo da indarrean.

IX.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatzekoa den xedapen orokor batek Hitzarmen honen V. atalean araututakoa aldatuko balu, egokitu egin beharko litzateke arau horretan xedatutakoaren arabera.

X.- Hitzarmen hau urte baterako ezarri da, eta urte urte berez berriztatuko da, baldin eta urtebeteko epe bakoitza amaitu baino hiru hilabete baino lehenago ez bada denuntziatzen.

XI.- EUDELEko kide diren udalek hitzarmen honekin bat egin nahi izanez gero, Elkartearen bidez egin beharko dute. EUDELEk hitz ematen du IBERDROLA S.A. enpresari hitzarmenarekin bat egin duten udalen berri emango diola, bai eta gerora bat egiten dutenen berri edo uzten dutenen berri emango diola ere. Hitzarmena utzi edo hitzarmenarekin bat egiten den kasuetan, bat egitea edo uztea gertatu eta hurrengo hiru hilabete aurrera izango dute eragina.

XII.- Hitzarmen hau bateragarria da IBERDROLA S.A.k dagozkion administrazio errekurtsioei eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioei eusteko eta horiek bultzatzeko Hitzarmen honetan modurik arin, automatiko eta gardenenean kudeatzea erabaki den Tasari buruzko araudia alda dadin eskatzeko, beronen araubide juridikoa aldatzen ez den bitartean.

Eta ados daudenez, agiri hau sinatu dute bikoiztuta eta ondorio bakar baterako

7.- GOIEKI. 2004. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabazi eta Galeren kontuak onartzea.

GOIEKIk 2004. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabazi eta Galeren Kontua eman dira ezagutzera. Alkateak esan du galeren emaitza 157.183,18 €koa dela eta hori udal-ekarpenekin estaltzen dela. Beasaini %30a tokatzen zaio.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EBko ordezkariak esan du abstenitu egingo dela. Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin, GOIEKIKO 2004. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabazi eta Galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokiona onartu da.

8.- ENPLEGU-PLANA. Beasaingo Udalaren eta organismo autonomoen enplegu-plana onartzea.

Alkate jaunak, Gobernazio-batzordeburuari hitza eman eta honek ondorengo enplegu plana onartzeko proposamenaren berri eman du:

“ Honi atxikitako **Enplegu Plana** onestea, alde batetik, Beasaingo Udaleko, Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoko, Beasaingo Udal Euskaltegiko eta Antzizar Kirolaren Udal Erakundeko Administrari-laguntzaile mailako pertsonalari mugatuta eta bestetik, Beasaingo Udalean Bibliotekan, Bide-garbiketari eta obrataran lan egiten duten langileei, KUEn diharduen monitorean eta erakunde horretako plantilari atxikitako peoiari.

Barne-igoerako prozesu horien bidez hutsik gelditzen diren langileen lanpostuak amortizatu egingo dira.

ENPLEGU-PLANA

Beasaingo Udalak, 2005eko martxoaren 10ean, osoko bilkuran, lanpostuen, lanpostu-balorazioko azterlan bat onetsi zuen, eta azterlan horretan, beste gauza batzuen artean, pertsonalaren arloan hainbat aldaketa egitea onartu zen. Aldaketa horiek, dagokien barne-igoera prozesuen bitartez bideratu beharko dira. Horren ondorioz, bidezkoa da Beasaingo Udaleko, Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoko, Beasaingo Udal Euskaltegiko eta Antzizar Kirolaren Udal Erakundeko pertsonal-plantilak beharizan horiei egokitzea, bidezkoak diren plazak sortuz eta dagozkien aurrekontuetako zuzkidurak eginez.

Zehazki esanda, erasandako lanpostuak 12 dira: **zortzi** Administrari-laguntzaile mailakoak, **bat** Bibliotekako laguntzailearena, **bi** Zerbitzu-sailekoak eta E mailakoak eta **bat** D mailakoa (KUEko monitorea edo begiralearena). KUEko Administrari-laguntzailearen kasuan salbu, asmoa, barne-igoera bidezko prozesuak burutzean, lanpostu horiek denak desagerraraztekoa da, izan ere, horietako titularrak sortu berri izango diren lanpostuetara pasatuak izango baitira.

Administrari-laguntzailetako zortzi postuetatik, 5 Beasaingo Udalaren plantilakoak dira, 1 Antzizar Kirolaren Udal Erakundekoa, 1 Udal Euskaltegikoa eta 1 Beasaingo Loinatz Musika Eskola publikokoa.

Administrari-laguntzaileak Administrari mailara igotzea, eman beharreko urratsa da, baldin eta Administrazioan sartutako teknologia berrien osagarritasuna eta udaletxean herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu berriak direla bide egin diren aldaketak kontuan hartzen baldin badira. Informatika sartu izana, horren adibide garbia da. Erabiltzaileen esku jartzen dituen erreminten bitartez, sareko instalazioak, etab., partaidetza anitzeko kudeaketa bateratuen aplikazioak eta prozesuetan bategitea, zail da gaur egun Administrazio Orokorreko C eta D eskaletan kokatutako lanpostu desberdinen edukien artean sailkapen-talde desberdinetan izateko adinako diferentziak bereiztea, izan ere, Administrari-laguntzaile mailako pertsonalak egiten dituen lanak, kualifikazio gehiagoko eta goragoko eskaera-maila duten pertsonak egitekotzat jotzen baitira.

Zerbitzu-saila aipatzen duten barne-igoerak, Sail horrek dituen giza baliabideak premiaz eta berehala berrantolatze dagoen beharrean dute beren izateko arrazoia. Planteatutako bi

igoera-bideen bitartez, alde batetik Obratako langileen Talde-buruaren irudia sendotu nahi da, eta horrekin egitura honetan finkatutako buruzagitza lortu, eta beste aldetik, berriz, deskribatutako bigarren igoerarekin, Garbiketako langileekin Obra-lantaldea sendotu nahi da, gaur egun denboraldiko esleipenen bitartez betetzen diren beharrizan desberdinei aurre egiteko.

Bai Bibliotekako laguntzailea C taldeari atxikitako Arduradun-mailara igotzeak, eta baita KUEko monitore edo begiralea igotzekoak ere, lanpostu horietan zerbitzuak prestatu behar diren profesionaltasun eta kalitatez prestatzeko dauden betebeharren eta ezagutzen eskaerei erantzutera datoz.

Udaletxeko pertsonala eta bere mendeko erakundeetako birbanatzeko modurik egokiena horretarako **Enplegu Plana** onestea dela iritzia da.

Enplegu Plan honek, onesten denetik bertan aurreikusitako neurriak burutzerainoko indarreangotasuna izango du, beti ere bera burutzeko data 2007ko martxoaren 31 izatearen kalterik gabe.

